



FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Lehenik eta behin, baliabide fisikoak behar dira. Horien artean sartzen dira ur-botilak egiteko materialak, tapoi bereziak, prototipoak sortzeko tresnak eta produktua biltegitratzeko edo garraiatzeko beharrezkoak diren elementuak. Baliabide fisiko hauek ezinbestekoak dira produktua errealitate bihurtzeko.

Bigarrenik, baliabide intelektualak oso garrantzitsuak dira. Tapoiaren kolore-sistemaren funtzionamendua, diseinua. Proiektua besteengandik bereizten laguntzen du eta honek balio handia ematen dio.

Giza baliabideak ere funtsezkoak dira. Taldeko kideek proiektua aurrera eramateko beharrezko lana egiten dute: ideiak sortu, erabakiak hartu, dokumentuak prestatu eta proiektua koordinatu.

Azkenik, finantza-baliabideak behar dira. Dirua beharrezkoa da materialak erosteko, prototipoak egiteko, kanpoko enpresak kontratatzeko eta proiektuko gastuei aurre egiteko. Finantza-baliabideak diru propioa, laguntzak edo babesleak izan daitezke. Diruaren kudeaketa ona egitea funtsezkoa da, proiektua aurrera eraman ahal izateko.